

AUKERALAN

Debegesak kudeatzen duen enplegu-programa da. Debarreneko Gizarteratze Sareak egindako lanaren eta bertan parte hartzen duten erakundeen lankidetzaren emaitza da eta **Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak** diruz laguntzen du, **elkar-EKIN Lanean** deialdiaren bidez. Elkar-Ekin lanean programa honen helburua gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden langabeak gizarteratu eta laneratzea da.

Nori dago zuzenduta?

Gizarteratze eta laneratze ibilbide hau 24 langaberi zuzenduta dago: **45 urte gorakoak, gazteak, bai emakumezkoak bai gizonezkoak.**

Pertsona guztiek Lanbiden lan-eskatzaille gisa izena emanda egon beharko dute, 16 urte beteak izan beharko dituzte eta Debarrena (Gipuzkoa) eskualdean (*Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar, Sorluze edo Eibar*) bizi beharko dute.

Programaren faseak

Ekimenak bi fase ditu. **Lehenbizikoan**, bi prestakuntza talde egingo dira eta 24 lagunek hartuko dute parte.

1. taldea. – Prestakuntza Eibarko Armeria Eskolan. Guztira: 12 lagun.

- ✓ **“SOLDADURA TIG MF0100_2” 2. mailako ELEKTRODO ESTALIA ETA TIG BIDEZKO SOLDADURA (FMEE0110)** profesionaltasun-ziurtagiriaren formakuntza modulua. **Guztira 370 ordu + 40 orduko praktikak enpresan**
- ✓ **Konpetentzien formakuntza:** Oinarrizko gaitasun digitalak, gaitasun pertsonalak eta profesionalak. **32 ordu**
- ✓ **Banakako akonpainamendua**, ibilbide osoan zehar.

2. taldea. - IMH prestakuntza. Elgoibar. Guztira: 12 lagun.

- ✓ **“FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIEI BURUZKO MF0088_1”, 1 mailako FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK (FMEE0108)** profesionaltasun-ziurtagiriko **180 orduko** formakuntza modulua eta **AUTOMATISMO ELEKTRIKO KABLEATUEI** buruzkoa **40 ordu**. **Guztira 220 ordu + 40 orduko praktikak enpresan**
- ✓ **Konpetentzien formakuntza:** Oinarrizko gaitasun digitalak, gaitasun pertsonalak eta profesionalak. **32 ordu**
- ✓ **Banakako akonpainamendua**, ibilbide osoan zehar.

Bigarren fasean, prestakuntza gainditu eta %80ko asistentziarekin betetzen duten pertsonen artean, **praktikak enpresetan** egin ahalko dituzte.

Izen-ematea

Izen-ematea formulario honen bidez egin daiteke: <https://acortar.link/hwOZJB>

Datak

Izena emateko epea irailaren 20tik urriaren 6ra izango da eta epe horren ondoren, izena eman duten pertsonen elkarrizketa baterako deia egingo zaie, hasierako balorazioa egiteko.

Prestakuntza 2021eko urritik 2022ko martxora bitartean egitea aurreikusten da.

Prestakuntzarako laguntza beka

Bestalde, beharrezkotzat jo dugu **beka-sistema** bat ezartzea, prozesuak kosturik izan ez dezan eta prestakuntzara joateko oinarrizko gastuak ordaindu ahal izateko. Ekarpena 9 eurokoa da pertsona eta egun bakoitzeko, baldin eta prestakuntzara joaten bada. Sinadura-orriaren bidez egiaztatuko da*

Informazio gehiagorako: 943 82 01 10 edo enplegua@debegesa.eus helbide elektronikoan (Ane Basurto)